

# BALIO PROPOSAMENA

- **Ze behar edo arazo konpontzen duzue?**

Konfinamenduan edo bizitzan bakardadean bizi de jendeak izan ditzakeen arazo psikikoak konpondu eta leuntzeko zerbitzu bat eskainiko dugu.

- **Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?**

Merkatuan ez dagoelako gu bezalako zerbitzu bat eskaintzen duen epesarik. Gure zerbitzuak ez dira zaindariak eskaintzea, baizik eta ezaugarri eta antzeko beharrak dituzten pertsonak elkartzeko ekintza bat da. Horretarako, inkesta batzuk banatuko dituguz gure zerbitzuak jaso nahi duten pertsonen artean. Inkestetatik jasotako erantzunak soziologo batzuek aztertuko dituzte kideak batu aurrerik.

Inkestak eta elkar bizitzaz gain, web gune bat sortuko dugu, non gure bazkideek mota anitzetako jarduera eta ekintzak egiteko gai izango diren. Gure bazkideen kopuru bat nagusiak izango dira, eta ziur aski ez dute gaur egungo teknologiak menperatuko, beraz, astean behin informatika saioak eskainiko dituguz, eta bezeroek aukeratuko dute langileak haien etxera joango diren ala haiek hurbilduko diren gure lokalera.

Beraz, laburbilduz, gure enpresa helburua pertsona bakoitzak dituen behar mentalak asetzea izango da. Horretarako, inkestak banatuko dituguz bizitzeko kideak bilatzeko, eta gainera, gure web-ean saioak eskainiko dituguz; hala nola, josteta online, nagusientzako jarduera fisiko moderatua irakasteko saio onlinak, arretarako telefono bat behar izanez gero momentuko arazo mentalak norbaiti kontatzeko edota laguntza eskatzeko, azkenik, txiste eta kontakizun saioak, entretenemendurako saioak eta abar ere eskainiko dituguz guztiontzako zuzendutakoak.